

# Whatsart\_DSS2016EU

Lehen atalaren memoria

abril de 2016



Kultiba garatzen ari den WHATSART\_DSS2016EU proiektuaren lehen atalaren memoria.

Amorebieta-Etxano, [abr-16](#)

**KULTIBA Koop. Elk. Txikia**

[www.kultiba.net](http://www.kultiba.net) // [www.kultiba.org](http://www.kultiba.org)

[info@kultiba.net](mailto:info@kultiba.net)

+34 94 673 06 52

San Miguel kalea, 8-1º izq.

48.340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)

**Responsable de la propuesta:**

[Aintzane Lekunberri](#)

[aintzane@kultiba.net](mailto:aintzane@kultiba.net)

635 751 687

# Aurkibidea

<b>Aurkibidea</b> .....	<b>3</b>
<b>Sarrera</b> .....	<b>4</b>
<b>Egin beharren deskribapen zehatza</b> .....	<b>6</b>
Preskriptore potentzialen datu basearen sorrerarako direktorioen aurkitzea eta honen garapena. ....	7
Preskriptore potentzialei lehen komunikazio bidalketa. ....	8
Preskriptore erreferentearen bilaketa. ....	8
Proiektuaren aurkezpen bileren koordinazioa. ....	9
Proiektuaren aurkezpenerako deialdia .....	10
Komunikabideak proiektuaren aurkezpen eta gizarteratzerako. ....	10
Aurkezpen batzarren garapena: .....	11
Akzio zuzentzaileen martxan jartzea: .....	13
Parte hartzaileen aukeraketa: .....	13
Komunikazio tresnen martxan jartzea: .....	14
<b>Erakartze fasearen ondorio nagusiak:</b> .....	<b>15</b>
<b>Eranskinak</b> .....	<b>17</b>

## Sarrera

Ondorengo lerroetan, WHATSART proiektuaren erakartze fasearen inguruko txostena aurkezten dugu.

Dokumentuaren ulermena errazteko asmoz, proposameneko kronograman markatzen diren eginbeharrak erabiliko dira dokumentuaren egituraketarako. Eginbehar hauez gain, beste zehatzago batzuk ere aurkeztean dira, proiektuan emandako pausu guztiak zehaztasunez ulertu ahal izateko.

## Egin beharren deskribapen zehatza

## Preskriptore potentzialen datu basearen sorrerarako direktorioen aurkitzea eta honen garapena.

### Deskribapena:

Datu basea sortu aurretik, preskriptore potentzialen antolaketarako sailkapen bat garatu dugu. Sailkapenaren helburua, Gipuzkoako gazteekin harremana izan dezaketen eragile gehiengora heltzea izan da beti. Ondorioz, sailkapena bi ardatzen inguruan egin da; alde batetik eskualdeka eta bestalde batetik, eragile motaren arabera.

Guztira 11 eskualdetako preskriptoreak topatu dira hurrengo eremuetan: udaletako gazteria sailak, gazteei bideratutako espazioak, ikastetxeak, musika eskolak, aisialdi, kirol eta gazte elkarteak. Data basearen sortzerako hurrengo iturriak erabili dira: Udaletako web-orriak, Eusko jaurlaritzako hezkuntza zentroyen direktorioa eta elkarte erregistro orria.

Guztira, 835 preskriptore potentzial identifikatu dira. Hurrengo taulan eskualdeka eremu bakoitzeko zenbatekoak aurkezten ditugu.

ESKUALDEA	GAZTERIA SAILAK	GAZTE ESPAZIOAK	IKASTETXEAK	MUSIKA ESKOLAK	ELKARTEAK
<b>BIDASOA</b>	2	4	13	2	45
<b>OARSOALDEA</b>	4	3	11	4	42
<b>DONOSTIA</b>	1	9	35	9	212
<b>DONOSTIALDEA</b>	6	7	10	6	28
<b>TOLOSALDEA</b>	11	4	8	2	30
<b>GOIERRI</b>	10	3	6	5	26
<b>DEBA BAJUA</b>	6	3	11	6	52
<b>DEBA ALTUA</b>	8	6	10	5	41
<b>UROLA KOSTA</b>	8	3	7	4	28
<b>UROLA ERDIA</b>	3	3	5	3	20
<b>UROLA ALTUA</b>	4	2	8	2	15

\*Eranskinetan data basea atxikitzen da. (1)

### Garapen data:

2015/11/05-2015/11/12

## Preskriptore potentzialei lehen komunikazio bidalketa.

### Deskribapena:

Data basea osatu ondoren, Identifikatutako eragile guztiei lehen Newsletters-aren bidalketa egin zaie. Bertan proiektuaren informazio orokorra bidali da eta baita Kultibako proiektu arduradunaren kontaktua.

### Garapen data:

2015/11/30

### Eraitza:

Lehen komunikazio ekintza honen erantzuna oso baxua izan da. Guztietatik % 1 agertu du proiektuarekiko interesa, % 40 proiektura bideratutako esteka zabaldu du eta beste %50ak berriz, zabaldu ere ez du egin.

Eraitza hauen aurrean, eskualde ezberdinetatik aukeraketa kualitatibo bat egitea erabaki da, harreman hurbilago bat mantendu eta proiektuarekiko lotura handiagoa lortzeko asmoz.

- > 2 Gazteria saila
- > 3 Ikastetxe
- > 1 Musika eskola
- > 2 Gazte-leku
- > 2 Gazte informazio

Talde hauetako preskriptoreei informazioa bidaltzeaz gain, telefonozko jarraipena egin zaie. Guztien artetik, proiektuarekiko interes handiena agertu dutenak, Gazteria sailak izan dira

## Preskriptore erreferentearen bilaketa.

### Deskribapena:

Preskriptore erreferentearen aukeraketarako, bi irizpide nagusi finkatu dira hasiera batean. Gazteentzat erreferente/ezagun izatea eta arteekiko harremana zuzena izatea. Irizpide bi hauek jarraituta pertsona ezberdinak zerrendatu dira eta bide ezberdinak erabiliz beraiekin kontaktatu dugu. Baiezko erantzunen faltan, irizpideak malguagotu egin dira. Jarraian kontaktuan jarritako pertsonak zerrendatzen dira:

- > Julen Telleria (Irrati eta telebista aurkezlea)
- > Alex Sardui (Gatibuko abeslaria)
- > Gose (Abeslaria)
- > Barbara Goenaga (Aktorea)



- > Mikel Aranburu (Errealeko futbolari ohia)
- > Aritz Aranbutu (Surflaria)
- > Xabi Solano( Esne beltzakeko abeslaria)
- > Zuriñe Hidalgo (Hesianeko abeslaria)

**Garapen data:**

2016/01/02-2016/01/25

**Emaitza:**

Saiakera guzti hauen aurrean jasotako ezezkoak baloratuta eta daten hurbiltasuna dela eta, DSS2016EUko proiektu arduradunarekin hitz egin ondoren, bide hau bertan behera ustea erabaki da.

## Proiektuaren aurkezpen bileren koordinazioa.

**Deskribapena:**

proiektuan finkatu bezala, proiektuaren aurkezpena Gipuzkoako 11 eskualdeetan egiteko diseinatu da. Eskualde bakoitzean, eskualdeko burua izan daitekeen herria aukeratu da batzarra egiteko. Batzarrak egin ahal izateko Herri horietako gazteria teknikariek aritu gara elkarlanean, bai data eta erabakiko diren espazioak adosteko. Elkarlana, batzarren antolakuntzarako gain, hedapenean gauzatu da. Jarraian proiektuaren aurkezpen toki eta datak aurkezten dira:

HERRIA	ESKUALDEA	DATA	ORDUA	TOKIA
<b>BEASAIN</b>	GOIERRI	16/02/16	11,00	IKASTETXEA
<b>IBARRA</b>	TOLOSALDEA	16/02/16	14,30	IKASTETXEA
<b>ZUMAIA (Andoni)</b>	UROLA KOSTA	17/02/16	18,00	GAZTE GUNEA
<b>AZKOITIA (Aintzane)</b>	UROLA ERDIA	17/02/16	18,00	ELKARGUNEA
<b>TOLOSA</b>	TOLOSALDEA	18/02/16	17,00	GAZTE TOPAGUNEA
<b>ARRASATE</b>	DEBA ALTUA	18/02/16	19,00	GAZTEGUNEA
<b>EIBAR</b>	DEBA BAJUA	19/02/16	18,00	GAZTELEKUA
<b>HERNANI</b>	DONOSTIALDEA	19/02/16	19,00	KULTUR ETXEA
<b>RENTERIA</b>	OARSOALDEA	19/02/16	17,00	MERKATUZARREAN
<b>IRUN</b>	BIDASOA	23/02/16	18,00	GAZTELEKUAN
<b>DONOSTIA</b>	DONOSTIA	23/02/16	18,00	BIDEBIETAN

Kasu bitan, eskualdean egitez, ikastetxeetan ere aurkezpen espezifikoak egin da, ikastetxeak aurkeztutako interesa dela eta.



- > Diario Vasco. 2016/02/17 <http://www.diariovasco.com/costa-urola/201602/17/whatsart-iniciativa-arte-proyecto-20160217000905-v.html>
- > Diario Vasco 2016/02/14 <http://www.diariovasco.com/oarsoaldea/201602/14/viernes-presentara-jovenes-proyecto-20160214002928-v.html>
- > Maxixatzen 2016/02/19 <http://maxixatzen.eus/azkoitia/1455882558961>
- > Goiena, irratri eta telebista <http://goiena.eus/debagoiena/1455867760179>
- > Urumeako Kronika  
<http://www.kronika.eus/albisteak/hernani/albisteak/2016/02/15/bfc5761d55420/15-eta-18-urte-bitarteko-gazteei-deia-artearekin-beraien-mundua-aldatzeko/>

**Garapen data:**

2016/02/2016

## Aurkezpen batzarren garapena:

**Deskribapena:**

Hurrengo taulan batzar bakoitzaren laburpen bat egiten da. Parte hartzaile kopurua, izen emate kopurua eta batzarren nondik norakoak definituz.

**Garapen data:**

2016/02/16-2016/02/23

Ondorio nagusi bezala, aurkezpen irekiak izan diren kasuetan, erantzuna nahiko baxua izan dela esan daiteke. Nahiz eta gazteria teknikariek lankidetzan jardun, oso zaila egiten da oraindik, gazteetara heltzea eta beraien interesa piztea.

TOKIA	PARTE HARTZAILEAK	OHARRAK
<b>Beasain</b>	34	Aurkezpena batxilergo artistikoko ikasleei egin zaie. Honek gazteek aurretiazko interes bat izatea ahalbidetu du eta proiektuarekiko jarrera positiboa erakutsi dute.
<b>Ibarra</b>	37	Ikastolak erakutsitako interesa dela eta Tolosaldeako ikastola honetan batzar espezifiko egitea erabaki da. Harrera ona izan du proiektuak nahiz eta momentuan izen ematerik ez egon.
<b>Zumaia</b>	5	Gazte-lekuan garatu da batzarra. Parte hartzea baxua izan den arren, hezitzaileak proiektua gazteei helarazteko konpromisoa hartu dute.
<b>Azkoitia</b>	3	Gazte-lekuan garatu da batzarra. Parte hartze baxua izan da honetan ere. Bai teknikariak eta parte hartutako gazteak proiektua komunikatzeko konpromisoa hartu dute.
<b>Tolosa</b>	1	Gazte-lekuan garatu da batzarra. Deialdiaren arrakasta baxua dela eta, Teknikariak proiektuaren aurkezpena bidaltzea eskatu digu, ondoren berak, aurre interesa izan dezaketenez gazteekin beste batzar bat garatu ahal izateko.
<b>Arrasate</b>	0	Gazte-lekuan izan da batzarra. Ez da inor hurbildu aurkezpenera
<b>Eibar</b>	0	Gazte-lekuan izan da batzarra. Ez da inor hurbildu aurkezpenera
<b>Hernani</b>	14	Udalaren konpromisoa oso altua izan da kasu honetan. Bai zinegotzia eta teknikaria egon dira aurkezpenean eta lan handia egin dute zabalkundearen. Gazteen erantzun oso ona izan da.
<b>Renteria</b>	0	Gazte-lekuan izan da batzarra. Ez da inor hurbildu aurkezpenera
<b>Irun</b>	0	Gazte-lekuan izan da batzarra. Ez da inor hurbildu aurkezpenera
<b>Donostia</b>	0	Gazte-lekuan izan da batzarra. Ez da inor hurbildu aurkezpenera

## Akzio zuzentzaileen martxan jartzea:

### **Deskribapena:**

Eskualde batzuetako aurkezpenek izandako arrakasta falta dela eta, aurkezpen berriak planteatu dira akzio zuzentzaile bezala. Nahiz eta proiektua aurrera eramateko parte-hartzaile nahikoa izan, akzio zuzentzaile hauen bitartez, proiektuaren diseinuan planteatzen zen talde eredu mantentzea izan da helburua.

Aurkezpen berrietarako, aurreko esperientziak kontutan hartuta eta lehen fase honetako epeak bukatzen doazela ikusita. Izen emateak egon ez diren eskualdeetan, Aurkezpen berriak, batxilergo artistikoa dagoen ikastetxeetan egitea erabaki da.

Guztira aurkezpen bi gehiago eraman dira aurrera:

Eibarko Ignazio Zuluaga ikastexea: Erantzuna oso ona izan da. Aurkezpena ikasle guztiei egin zaie (100 guztira), ondoren interesa agertu dutenak 30 bat gutxi gora behera, geratu dira, agertu zaizkien dudak argitzeko.

Irungo Pio Baroja ikastetxea: Parte-hartzea oso ona izan da eta baita gazteek erakutsitako interesa.

Donostiako Usandizaga ikastetxean ere egiten saiatu gara, eskualde honetan izandako parte-hartze falta ekiditeko asmoz, baina ez zaigu posible izan.

### **Garapen data:**

2016/03/07-2016/03/11

## Parte hartzaileen aukeraketa:

### **Deskribapena:**

Hasiera batean proiektuan finkatzen ziren talde zenbakietara (11 talde motorea eta 30 laguntza taldea) parte-hartzaileen aukeraketa egiteko, irizpideak finkatzea planteatzen zen arren, Donostia 2016ko arduradunekin kontrastatu ondoren, izena emandako guztiei parte hartzeko aukera ematea erabaki da.

Izen emate zenbakiak hurrengoak izan dira: Guztira 52 pertsonak eman dute izena, hauetatik 28 talde motorerako eta 24 laguntza taldean. zenbakiak planteatzen direnak baino altuagoak diren arren, kalitatezko prozesu bat aurrera eramatea zenbaki hauekin bideragarri ikusten dugu. Hasierako Zenbakietan zentratzeak, alde batetik, gutxi batzuk kanpoan ustea ekarriko luke eta

bestalde, era honetako prozesuetan sarri ematen den bezala, bidean galdu daitezkeenak kontutan izanda bukaerako zenbakia esperotakoa baino baxua izatea ekarri zezakeen.

Taldearen ezaugarri nagusienei dagokionez, % 65 neskek dira, guztietatik 18 gazte dira 15-16 adin tartekoak eta eskualdeka banatuta hurrengo datuak ditugu:

- > Urola altua: 5
- > Urola erdia:1
- > Deba baxua: 10
- > Bidasoa: 7
- > Donostialdea:8
- > Goierri:8
- > Oarsoaldea: 1
- > Tolosaldea:10

Eranskinetan Excel bat eransten dugu, izen emate guztiekin, non filtro ezberdinak erabiliz, datu ezberdinak lortu daitezke.

**Garapen data:**

2016/03/11

14

## Komunikazio tresnen martxan jartzea:

**Deskribapena:**

Komunikazio tresnetan bi motatakoak ezberdintzen dira:, alde batetik Whatsapp talde bat sortu da partaideekin komunikatzeko, non hurrengo tailer eta laborategien berri ematen den, daten oroipen mezuak bidaltzen diren, dudak argitzeko etb. Eta bestalde proiektua gizarteratzeko eta honen berri emateko beste tresna ezberdinak jarri dira martxan. DSss2016Eu ko web gunean proiektuaren blog-a ireki da, @WhatsART2016 izeneko Twitter-a eta @WhatsART izeneko Instagram-a.

**Garapen data:**

2016/03/11

## Erakartze fasearen ondorio nagusiak:

Lehen fase honen garapena, hasierako planteamenduan aurkeztutako kronogramak markatzen zituen datetatik aldendu dela esan beharra dago. Hasierako egin beharren definizioan azaldu bezala, preskriptoreak bitartekari bezala planteatzearen ideiak ez ditu esperotako emaitzak eman. Gauzak honela, planteamendu berri bat landu eta aurrera eraman behar izan dugu, honek datetan atzerapena eramatea sortu digularik. Hala ere, atzerapen honek, hurrengo pausuak era azkarrago batean eman behar izatea soilik ekarri du, proiektuaren osotasunean eragozpenik sortu gabe.

Erakartze fase honetan, gazteengana heltzeko azkenik, preskriptore aldetik, aukeraketa kualitatiboago bat egin dugu, emaitza hobekiago lortu direlarik. Preskriptore hauekin harremana era zuzen eta estuago batean garatu da, beraien inplikazio handiago bat lortuz. Preskriptore hauekin lankidetzara bi zentzutan oinarritu da; alde batetik lehen fase honetan difusioan eta aktibazio fasean, espazioen uztean oinarrituko da.

Lehen fasean, proiektuaren parte-hartzaileen adinak suposatzen dituen berezitasunak direla eta, nahiko zaila izan da beraiengana heltzea eta aurkezpenetan parte hartzea; gazteei bideratutako proiektuetan daukagun esperientzia aintzat hartuta, orokorrean existitzen den zailtasuna bat da, nola gazteetara heldu, eta beraien interesa piztu. Zentzu honetan, errazagoa izan da gazteen parte hartzea bermatzea, ikastetxeetako aurkezpenetan.

Esan beharra dago baita, aurkezpenetako asistentzia altuegia ez bada izan ere, parte hartu duten % altu batek eman duela izena proiektuan eta interesgarri suertatu zaiela.

Izandako zailtasunak medio, erakartze faseko balorazio positiboa egiten dugu, proiektuan planteatzen ziren zenbakiak lortzeaz gain, proiektua erabiltzaile gehiagori zabaltzea lortu baita.



## Eranskinak

Eranskina 1: Preskriptoreen data basea.

Eranskina 2: Izen emateen zerrenda.

Dokumentu hauek duten bolumena dela eta, dokumentu ezberdinetan atxikitzen dira.

# Kultiba



**KULTIBA Koop. Elk. Txikia**

[www.kultiba.net](http://www.kultiba.net) // [www.kultiba.org](http://www.kultiba.org)

[info@kultiba.net](mailto:info@kultiba.net)

+34 94 673 06 52

San Miguel kalea, 8-1º izq.

48.340 Amorebieta-Etxano (Bizkaia)